

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Mendoza kontseilariak nabarmendu du aurre-matrikula prozesua normaltasunez eta parte-hartze handiarekin egin dela

6.100 izen-emate erregistratu dira, eta sare publikoa aukeratu dute horietatik % 60 baino gehiagok

Asteartea, 2017.eko otsailak 28

Aurre-matrikula garaia normaltasun osoz igaro da, eta [6.100 izen-emate](#) erregistratu dira, iazko 5.906 izen-emateen aurrean. Hezkuntzako kontseilariak jakinarazi duenez, datu horiek esan nahi dute hiru urteko seme-alabak dituzten familien % 60k sare publikoa aukeratu duela, aurreko ikasturtean baino zertxobait gehiagok. Gainera, familien % 98,4k lortu du plaza egindako lehen aukeran; horrela, aurreko aurre-matrikularen zifrei eutsi zaie.



Haurrak eskolan.

Departamentuko arduradunek adierazi dutenez, igoera horren arrazoietako bat da komunikazioa hobea izan dela informazio-kanpainan, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin batera, ahalegin handia egin dela familiak tramite horrek duen garrantziaren inguruan kontzientziatzeko.

Halaber, Mendoza kontseilariak azaldu du Hezkuntza Departamentuak landa-inguruneko eskolak sustatzeko eta mantentzeko konpromisoa hartu du eskola horietako komunitateen aurrean. Hain zuzen ere, lerro berriak egokituko dira Alloko La Cruz ikastetxean eta Antzineko San Fausto ikastetxean, horien etorkizuna mantentzeko eta ziurtatzeko, beren seme-alabak era horretako eskoletan eskolaratzearen eta, kasu bietan, D ereduan ikastea eskatu duten herri-gune horietako familia gehienen eskariei erantzunez.

Zentzu berean, Hezkuntza arloko arduradunak iragarri du eremu ez-euskalduneari ere jarriko dela D ereduko lerro bat, Oliteko Vianako Printzea ikastetxe publikoan; hiru urteko ikasleen 8 aurre-matrikula berri jaso dira. Gainera, indartu egingo da aurrez euskarazko irakaskuntza-lerroak jarri ziren ikastetxe guztietako eskaintza.

Hezkuntza Departamentuak 134 aurre-inskripzio erregistratu ditu eremu ez-euskalduneari; horietatik 84 ikasketak D ereduan eskainiko dituzten sare publikoko 8 ikastetxetakoak dira. D eredia izango duten ikastetxe berriak dira: Allo, Antzin eta Olite. Horrela, eremu ez-euskalduneari D eredia eskaintzen duten ikastetxeak dira: Alloko La Cruz,

Antzingo San Fausto, Caparrosoko Virgen del Soto, Lodosako Angel Martinez Baigorri, Oliteko Vianako Printzea, Tafallako Marques de la Real Defensa eta Zudaireko Las Amescoas.

Atzerriko hizkuntzak

Bestalde, sei ikastetxek, bi publikok eta itundutako lauk, atzerriko hizkuntzetan ikasteko programa (PAI) eskainiko dute datorren ikasturteetik aurrera, eta ezein ikastetxek ez du eskatu programa hori eskaintzeari uzterik. Nabarmenezkoa da igo egin dela matrikula kopurua programa hori frantsesez eta alemaniarrez eskaintzen duten ikastetxeetan.

Errenta-aitorpenen azterketei dagokienez, Roberto Perez Elorza Hezkuntzako zuzendari nagusiak azaldu du ikastetxeetan sartzeko puntuazio handiagoa lortzeko errenta txikiaren baldintza izatea eskatu duten familien 178 dokumentazio aztertu dituztela, guztiak Iruñeko eta bertako eragin-eremuko itundutako ikastetxetakoak, eskainitako plazak baino handiagoa izan zen-eta eskari kopurua. Azkenean, aitorpen ez-zehatzak aurkeztu dituzten bi kasu antzeman ditu Hezkuntzak, Ogasunarekin laguntzarekin. Datozen ikasturteei dagokienez, Roberto Perezek iragarri du prozedura hori aurre-inskripzioen urteko protokoloan sartuko dela, eta automatikoki egingo dela.